

4. Diru-iturriak

Prezioak finkoak izango dira, bezero guztiek kantitate berbera ordaindu behar izango dute gure zerbitzuarengatik. Egia da, bezero bakoitzak denbora tarte desberdin batean ordaintzeko aukera izango duela (diru asko ez daukatelako, laguntzak behar dituztelako...) baina, azkenean, prezioa ez da aldatuko. Hau da, ordainketa errepikariak izango dira nagusi. Bezero bakoitzak, panela erosi aparte, nahi duen gehikaria eros dezake, eta horrek aldaketa bat prezioan eragingo du, baina panelaren prezioa guztientzako finkoa izango da.

GANVI-ren diru-iturriak ere publizitatean edukiko dute garrantzia. Gure enpresa bezeroei heldu dadin, publizitate minimo bat erosiko dugu, gure enpresak gora joan dezan.

Aktiboen salmentak izango dira enpresa honen lehenengo diru-sarrerak. Panelak saltzeak da enpresa honen helburua, eta salmenta horrekin irabazten dugun dirua izango dira gure diru-sarrerak, eta diru-sarrera hauen parte bat gure enpresan inbertitzeko erabiliko da, eta beste parte bat gure enpresak eskatutako kreditua bueltatzeko izango da. Kreditu honek enpresa sortzeko behar dugunaren kapitalaren gehiena emango digu, baina laurdena bazkideek ekarpenetatik lortu beharko dugu.